

### 1994ko urtarrilak 3

Ez dio axola nondik natorren, nora noan. Hiriko kaleetan barrena nabil eta horixe da guztia, ez dago besterik.

### 1994ko urtarrilak 6

Tristeia da bere erredakziotik irten gabe nazioarteko berrien sailean lan egiten duen kazetariaren patua: beti omenka aritu beharra du, ahalik eta disimulurik handienez. Baina ez al dute gainerako sailetako kazetariak ere gauza bera egiten? Eta gure eguneroko bizitzan ere, ustez egarrik geurenak esaten ari garenean, ez al gara sakonean, neurri handi batean bederen, omenka ari?

### 1994ko otsailak 20

Gogoan dut txikitan, bizitzari aurre egitea hain zaila iruditzen zitzaidanean, munduari eta bere osagai guztiei nien beldur neurrigabe hura guztiz sendaezintzat nuenean, inoiz besteak bezalakoa izan eta gutxiago ez sentitzera iritsi ahal izango nintzenik sinestea guztiz ezinezkoa zitzaidanean, inoiz niregandik espero zenaren laurdenik emateko gauza ere ez nintzela izango pentsatzen nuenean, gogoan dut orduan, txikitan, harritu egiten ninduela nire ahalke abisal, patologiko eta gogo-elbarrizaille hari buruzko erreferentziarik batere ez aurkitzea inon, ez telebistan, ez egunkarietan, ez irratian, ez liburuetan, ezta alboko inoren jardunean ere. Horretaz mintzatuko zen zerbait edo norbaiten premia nuen baina ezin antzekorik inon sumatu.

Gaur egun, berriz, horretarako aukera eskuan izan arren, ez dut gaitz hartaz jarduteko asmorik edo gogorik, eta jokabide hori oso bidezkoa ez dela pentsatzen dut batzuetan: egia da, bai, apurka-apurka, urteetan, gainditzen ari naizela gaitza, erabat sendatu ez banaiz ere onera egin dudala, askoz ere itxura hobea erakus dezakedala edonoren aurrean. Baina ez ote nieke nire elkartasuna agertu behar nik pairatu nuena pairatzen ari diren neska eta mutil koxkorrei, edota urteetan aurrera egin arren gaitzari gain hartzerik izan ez duten herabe erremediorik gabekoei?

\* \* \*

Koaderno, liburu edo dena delako hau ondo dago, ona da. Horretan ez dut dudarik, mundu honetan ondo dagoen edo ona den ezer izan litekeenik ametitzen badugu behintzat. Lerro hauek barrutik, erraietatik idatziak dira, benetakoak, landutako adierazkortasunez indartuak, teknika estilistiko eta literarioz ere zainduak. Hori ez dago ukatzerik, ez zait iruditzen. Badakit zertan ari naizen eta arduraz egiten dut lana. Nire lan honek inorekin konektatuko duen edo ez, inori gustatuko ote zaion, hori beste kontu bat da, lanaren baitan ez dagoena. Lan ona egiten ari naiz neure artean, neure barrura begira. Hutsik izatekotan, neure barru horretan dago, neure barru horrek interesik ez duelako izango da, itsusia delako, tristeia delako, hitsa, gogaikarria, aspergarria..., eta ez egiten ari naizen idazle lana kaskarra delako.

### 1994ko otsailak 23

“Ez zait gustatzen oinetako atzazalak dutxatu ondoren moztea. Askoz ere bigun eta malguago egoten dira izerditan daudenean. Eskueta atzazalekin ekiten diet orduan, eta ez didate batere arazorik sortzen nahi dudan neurrian mozteko, gozo-gozo, eskuaren gehiegikeria trakets baten ondorioz oinetako atzazala urratu eta behatza mintzeko beldurrik sentitu gabe.” Zer egiten duzu, irakurle, lerdokeria hauek irakurtzen? Ez al duzu hau baino testu interesgarriagorik ezagutzen? Ala zuk ere eskueta atzazalez mozten dituzu oinetako atzazalak, izerditan bigun-bigun daudenean? Eta zuri ere zerbait iradokitzen dizu oinetako atzazalen mozketari buruzko aipamen itxuraz ezin arrunt eta prosaikoago horrek: barru-barruko sentimendu ezku aitorrezina, giza jokabidearen metafora zuzen eta, haatik, ezin disimulatu, sotil eta iradokitzaileagoa ere badena? Hala bada, barkaidazu esatea baina burutik seko jota zaude.

## **1994ko otsailak 26**

### Publizista

Ez ditu gaur bere orduak ondo aprobetxatu egunak. Ganorarik gabeko kaka-lana baino ez du egin. Egutegiak iragarria zuen orduari aurre harturik dator gaua, egun argiari azken hats aspaldi ahuldua aise lapurtuz, borrokatu beharrik gabe. Hodei astun eta beltzez zamatuta ikusi dut oraintxe bertan, balkoitik, euri tanto lodi baina urri eta motelak askatzen hasia dagoen ortzi geldo zapaltzailea. Barrenak estutu eta barnebiltzera behartu nau ikuspegi itogarri horrek. Aurreko kaleko autoak inoiz baino mantsoago zebiltzala iruditu zait, inorako pozik gabe, etsita; eta txofer guztiek sabelean nik daukadanaren antzeko korapiloa zutela, nik bezain nahasi eta goibelak zituztela barrenak haiek ere, eta ez zutela, nik neuk ere ez dudan bezala, inoiz berriro egun eguzkitsu eta zorionsurik ikusteko itxaropen zentzuzkorik.

Dena den, badakit uneari dagozkion irudipenak baino ez direla horiek, funtsik gabeko tentelkeria hutsalak. Badakit mantsu zebiltzala iruditu zaidan autoak ez zebiltzala benetan mantsu, eta euren txoferren kezka nagusia etxera lehenbailehen iristea baino ez zela, han, lasai-lasai, telebistan ematen ari diren Athleticaren eta Errealaren arteko futbol partidari begira geratzeko. Badakit beste era batera ikusiko nukeela neuk ere eguna azken bolada honetan ditudan kezkengatik ez balitz. Badakit kanpoan ikusi dudanaren pareko zero goibela dudala barruan, eta horixe dela lehen balkoira bultzatu nauena, eta orain, berriz, pentsamendu ilun hauetara bideratu eta idaztera eseriarazi, bestela neu ere telebistako futbol partidari begira egongo bainintzen seguru asko, garagardo bat eskuan hartuta, bake-bakean, zorion betean.

Alferrikakoak dira, hala ere, gogoetarako nire ahaleginak. Nire barruko kezkak ez du konponbiderik. Beranduegi konturatu naiz konturatu beharrekoaz. Honezkero oso zaila da nire orain arteko bizitza guztia ukatu eta kontrako norabidean ibiltzeari ekitea. Lehendik jakin izan banu, lehenago konturatu izan banintz, neure lanari itsu-itsuan ekin aurretik benetan zertan ari nintzen pentsatzeko beta apur bat izan banu... Orduan ez zegoen, ordea, pentsatzen gelditzeko astirik. Pentsatzen gelditzea denbora alferrik galtzea zen; okerrago: etsaiari abantaila ematea.

Atzera egiteko berandu denean, aurrera ere ezin eginda geratu naiz. Ezin dut jarraitu betiko lanean eta betiko giroan, baina ez dut ez beste lanik eta ez beste girorik. Aspaldidanik nenbilen zalantzak izaten hacia, baina Eusko Jaurlaritzak Abiadura Handiko Trenari buruzko publizitate kanpaina enkargatu zigunean gainezka egin zuen ezinegonaren pitxerrak. Pozez hartu zuten albistea enpresan, Euskopublikentzat lan ezin egokiagoa dela esanez. Baina nik badakit zer den Abiadura Handiko Trena, nik badakit

zein diren Eusko Jaurlaritzaren asmoak, nik badakit, oso ondo dakit, zer den joko horretan sartzea eta, benetan diot, niretzat gehiegi da. Ezin naiz hainbesteraino iritsi.

Urte asko daramatzat publizista lanean. Hasieran onartu egiten nuen lanbide hau; duin eta aberatsa iruditzen zitzaidan, gainera, sortzailearen lan artistikoari aukera zabaltzen ziolako, kaleei, gizarteari eta eguneroko bizimoduari kolorea eta bizitasuna ematen ziolako... Baina urteak aurrera joan ahala gero eta garbiago ikusi dut sormen artistiko horren eta kolore bizigarri horien azpian gordetzen den alderdi iluna: gero eta garbiago izan dut zein den gure benetako zeregina, gero eta garbiago agertu zait lanbide honek gezurrarekin, iruzurrarekin eta injustizia sozialarekin duen zerikusi estua, gero eta garbiago jabetu naiz agintearen estolda kirastuetako arratoi langilea baino ez naizela izan urte hauek guztietan. Mundua horrelakoxea dela onartzen irakatsi eta irentsiarazi digute, ordea, txiki-txikitatik, eta, jakina, zerbait egin beharra dagoela, han edo hemen, eguneroko ogia –eta ogia ez diren beste milaka gauza– irabazi beharra dagoela, nahiz eta horretarako askotan hurbileko zein urruneko jendea gupidarik gabe kolpatu eta zapaldu behar izan... Horrelaxe bizitzen ikasi genuen, eta horrela ikasten duenarentzat ez da erraza beste inola bizitzen asmatzea.

Gizarte teknifikatu honetan, mila aurpegi ez ezik mila lanbide ere baditu borreroak, eta publizista da, dudarik gabe, horietako bat, sofistikatuenetakoa, nire ustez behintzat. Biktima ukitu gabe, ikusi gabe, ezagutu gabe gauzatzen du, ia-ia oharkabean, bere eraso txikitzaile eta hilgarria publizistak, diruaren eta, horrenbestez, agintearen nahiei men eginez, zintzo eta leial. Auto azkarrak erosi eta bide bazterrean txiki-txiki eginda hiltzera bultzatzen ditugu, esate baterako, gazteak, orain burura etortzen zaidan adibiderik garbi, garden eta gordinena aipatzearren; baina badira askoz ilun, zeharkako eta atzemangaitzagoak izan arren are kaltegarriagoak diren ekimen publizitarioak ere.

Baina, bere zereginaren makurkeriaren berri izanagatik ere, biktima ikusi, ukitu eta ezagutu ere egin gabe lan egiten duen borreroak ez du bere lanbideari uko egiteko motibazio nahikorik sentitzen. Pentsatzen du –halaxe baita, izan ere– berak egin ezean beste norbaitek egingo duela bere lana; eta, gainera, azken finean, biktimek borrorotzat hartzen ez dutenez, bakean bizitzeko aukera du, bere barruko kezka ilun horiek zentzurik gabeko txorakeriak direla iritzita, lan gehiegi egitearen ondoriozko nekearen ajeak.

Abiadura Handiko Trenarenak, ordea, ukitu egin nau, jo eta eraitsi, ni jaio nintzen baserria eta nire txikitako jolasen lekuko izandako parajeak suntsituko baititu. Kasualitatea, alajaina! Badakit nirea ez dela kasu bakarra, nirea bezala beste asko eta asko suntsituko dituela. Badakit ziztrinkeria hutsala dela hori gizarte honetan egunero egiten diren mila barrabaskeria izugarrien aldean. Badakit egoistegia dirudiela nire arrazonamenduak, baina kontua da oraingo honetan borreroak bere biktima ezagutu egiten duela, edo okerrago, borreroari bere izatearen zati bat hiltzen laguntzea eskatu diotela, eta hori gehiegi da. Jakin badaki borreroa askoz ere krimen latzagoak egina dela, baina inoiz ez du bere lanaren ondorio lazgarria orain bezain gertutik eta orain bezain bizi sentitu.

Amaitu da telebistako partida. Beren erara, egin dute futbolariak ere, galtza motzak jantzita, beren borrero lana. Idazteari utzi eta balkoira irten naiz berriro. Murriztu egin da trafikoa, baina oraindik ere txoferrak gogogabeturik dabilzala iruditu zait. Ilunak erabat bereganatua du egunari geratzen zitzaion azken indar hondar pattala. Gauak ezkutuan gordetzen baditu ere, sentitu egiten da ortziko hodei beltz lodien zama itogarria. Neure sabela ere goibel eta astun sentitzen dut, etorkizunaren beldur, neure buruaren beldur, zer egin dezakedan erabaki ezinda. Kanpaina berria onartu eta lanean jarraitu ala, orain arte egindako bide landu eta neketsuari uko eginez, borrorotzari betiko

adio esan? Ba al du, ordea, hainbeste urtetan borrero baino izan ez denak beste ezer izaterik?

### **1994ko martxoak 3**

Estreinakoz haien berri izan nuenean garai ahantzietako momia aspaldikotzat izan banituen ere, Mirande eta Aresti ia-ia idazle garaikidetzat ditut gaur egun. Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Aitzol eta abar ere ez ditut orain dela bost, sei edo hamar urte bezain urruneko sentitzen. Orobat gerraostea eta gerra bera ere. Ume nintzela, sarri antzean entzuten nituen artean oso aspaldikoa ere ez zen gerrari eta haren ondorengo urte latzei buruzko aipamenak, baina urrun ezkututzen zen garai ilun batekoak balira bezala jaso ohi nituen orduan kontu haiek guztiak. Gaur, aldiz, denboran askoz ere urrunago daudenean, orain dela gutxikoak iruditzen zaizkit kontuok, zuzenean ezagutu ez nuen arren ia-ia ukitu ere egin daitekeen iragan hurbil batekoak, ez atzokoak baina bai, gutxienez, herenegungoak.

Arrazoi matematiko simple, hotz, ziur eta eztabaida ezina du, nik uste, garai historiko iraganen pertzepzio aldaketa horrek, gerturatze progresibo eta itxuraz kontraesankor etengabe horrek: 15 urte nituenean nire ordura arteko bizitza halako 2,6 –39 urte– zen gerra amaitu zenetik iragandako denbora tarteak; gaur egun, aldiz, 30 urte ditudalarik, 15 urte gehiago dira pasatu direnak, jakina, 54 guztira, baina nire orain arteko bizitza halako 1,8 baino ez da hori, proportzioan askoz gutxiago, alegia.

Progresio matematiko horren ondorioz, denboran aurrera egin ahala, heldu edo zahartu ahala, denbora tarte oro gero eta laburrago sentitzen da, gero eta eskas, ahul eta ezdeusago (ikus 1993-VII-26). Berez, ez litzateke txarra hori, atzean utzitako denbora tarteekin baino gertatuko ez balitzaigu, aurrean ditugunei buruz beste era batera jokatzetik izango bagenu. Hortxe dago koska! Horrexek izorratzen gaitu!

### **1994ko martxoak 8**

Zipriztin ttiki bat baino ezin izan, ahaleginik handienak eginik ere.

### **1994ko martxoak 22**

#### Iparrorratza

Tarteka-marteka mendian ibiltzeko ohitura dudanez, iparrorratza edukitzeko apeta nuen aspaldidanik, eta orain hurrengoan erosi egin nuen bat, txikia eta sinplea, polita. Erosi nuenez geroztik mendira joaterik izan ez dudan arren, aldean daramat beti iparrorratza, eta, bururatzen zaidanean, begiratutxo bat ematen diot, iparra non dagoen adieraz diezadan.

Ibiltariak mapak bezala, pentsalariak liburuak ditu bide erakusle. Baina pentsalariari iparra non dagoen esango dion trasterik ez da oraindik asmatu.

### **1994ko martxoak 29**

Harritu egiten nau egoera politikoa barru-barruan eta bizi-bizi sentitzeko batzuek duten gaitasunak; harritu egiten nau zein poz intimo eta zinezkoz hartzen dituzten beren betiko ideiek eguneroko borroka politikoaren zelai beti nahasian izaten dituzten garaipenik txikerrenak ere, eta zein amorru erraietakoz astintzen duten egunkaria ideia horiei egindako eraso demagogiko batekin topo egiten dutenean. Indar hori nondik ote

datorkien ezin asmatuta geratzen naiz, zur eta lur, horrelakoen aurrean, atxikimendu hain zintzo eta estu horren erroak non izan daitezkeen antzemateko ezgauza.

Niri, aldiz, ez zaizkit ideologiaren arropak soinean itsasten mundura irten eta haren espaloi zabaletik nabilenean. Erabat biluzik sentitzera ere aise hel naiteke bakarrik banaiz; bakarrik ez naizenean, berriz, neure-neurerik ezean, inguruan ditudan lagunen arropak izan ohi dira sarri benetan janzen nautenak.

Leunegia ote da nire larrua, bizitzaren atzapar zorrotzek gutxiegi urratua, gutxiegi zaildua, ideologia nire soinean itsatsita geratu ahal izateko? Litekeena da arrazoi prosaiko horrek ere zerikusirik izatea, baina bada –badela uste dut, badela sinetsi nahi dut, badela pentsatzeak liluratzen nau– hori baino sakonagoa den beste zerbait ere nire biluztasun batzuetan fresko besteetan hotz horren arazoaren inguruan: mundua oso urrun dagoela erakusten didan barne-begirada ilun eta abisala, hitz gutxitan eta gaizki –hobeto ezin– esateko.

### **1994ko apirilak 3**

Nire mendizaletasuna ez da batere aratza, ez da batere garbizalea. Ezta batere ekologista ere beharbada. Izadiak berez eskaintzen dituen paisaia eder, liluragarri eta miresgarriek baino gehiago harritzen naute gizakiak izadiaren baitan utzitako arrastoek. Ederragoa izan daiteke, niretzat, bidea nora doan dioen karteltxo bidea inguratzen duen pagadi dotore eta bikaina baino; erreka bizi bateko ur gardena baino liluragarriagoa izan daiteke, niretzat, gizakiak aspaldi bere gainean ezarritako harrizko zubitxo apala; mendi handi eta garaia baino miresgarriagoa izan daiteke, niretzat, mendi horren gailurrean inguruko mendizale talde batek ezarritako kutxatila edo gurutzetxo ttikia; basurde bat ikusteak baino dardara biziagoa eragin diezadake, niri, mendian errepiderik gabeko baserri zahar eta abandonatu batekin topo egiteak. Gogorra egiten zait aitortzea, baina inoiz gertatu izan zait mendi buelta bat egin eta begi aurrean izan dudan ikuspeirik politena bide ertz batean ezustean aurkitutako hondakindegia txiki bat izan delako ideiarekin itzultzea ere.

Dena den, giza arrasto horiek mendian aurkitu ditudalako harritzen naute, mendian agertu zaizkidalako, ezustean gehienetan, beren indarraren iturri ezinbesteko den inguru naturalarekin kontraste bizian. Beraz, giza arrastoak bezain garrantzitsua da, niretzat, nire mendizaletasunarentzat, izadia bera, mendia bera. Horrela ikusita, aratza edo garbizalea ez izanagatik ere, ez dut uste nire mendizaletasuna guztiz antiekologistatzat jo daitekeenik.

### **1994ko apirilak 13**

“Ondo pentsatzen badugu, gorrotoa da batzen gaituena. Etsai beraren aurka gaude guztiok, eta hori da gure batasunaren muina, arrazoi funtsezko eta bakarra. Gehiago gaude gauza edo pertsona batzuen aurka gauza edo pertsona batzuen alde baino. Hori normala dela ere esan daiteke, eta azken finean ez dago gaizki denok, bakoitzak bere erara, talde txikiagoetan edota denok batera, etsai ditugun gauza edo pertsona horien aurka jokatzeko. Azken finean, garbi baitago, baita ere, gure ekimen eta ekitaldien arrakasta, neurri handi batean, etsaia izorratzea dela, geuretzat edo guk estimatzen dugun ezer edo inorentzat ezer baliozkoa edo positiboa lortzea baino gehiago.”

### **1994ko maiatzak 7**

Berdin dio  
zure begien koloreak.  
Berdin dio.  
Berdin dio  
zure galtzak duen zimurrak.  
Berdin dio,  
berdin dio.  
Berdin dio  
ekarriko zaituen autobusaren matrikulak.  
Berdin dio zure irribarreak.

Baina berdin dio orobat  
zu nor zaren ere,  
berdin dio, berdin-berdin dio,  
eta horixe da min ematen duena,  
min berdin ez diona,  
min guztiona dena,  
min mina, min lehenetan lehena,  
min mina, min azkenetan azkena,  
min dena gure egiazko barrena,  
min zer garen benetan dioena,  
minaren min, minik minena  
muinaren muin, muinik muinena,  
errai bizi, gu zin-zinez garena.

## 1994ko ekainak 11

### Sekula Pancorbo izan gabe

*“Y el hombre fuerte del norte regresa a su país  
sonriente. Como hacía muchos años que no le sucedía,  
tal vez desde el final de la negociación del Estatuto,  
llegaba a Pancorbo con una sonrisa dibujada en su cara.”*  
(Iñaki Uriarte, *Deia* egunkaria, 1994ko ekainak 6)

Berez muga gorago badago ere, Madrildik bueltan Pancorbora iritsi orduko Euskal Herrian nagoela sentitzen dut. Ingurune menditsuaren magalean apal-apal kuzkurtutako herri horrekin bat eginda sentitu izan dut beti neure arima, hara eta hona egindako joan-etorri ugarietan, trenean batzuetan, autobusean inoiz eta autoan gehienetan, bertatik pasatzea egokitu zaidan guzti-guztietan.

Zeru grisez iritsi gara gaur arratsean Pancorbora. Tristura sarkor batek ziztatu nau Espainiako lehendakariarekin izandako solasaldiaren ondoko azken irribarreak gogoratzean. Batzuetan zerbait garela uste izaten dugu eta, bai zera!, zakurraren putza! Deus ez, ez gara deus ere. Berri onak ekarri ditut bada gaur Madrildik: hain beldurturik gintuen krisialdiari aurre egiteko moduan garela, transferentziek oztoporik gabe egingo dutela aurki beste bide puska bat, Espainiako lehendakariak gure beharra duela eta guregan uste osoa... Markatua dugun strategiaren bidean aurrera egiteko moduan garela, alegia... Ez da, ez, lasaitasun makala, aurreko egunetako beldur-dantzen ondoren. Baina hala ere tristura sarkor menderagaitza barrenean nik Pancorbora iritsi bezain laster...

Izan ere, Espainiako lehendakariaren irribarrearen oroitzapenak Pancorbo inguratzen duten gailurretako zeru gris malenkoniatsuekin topo egin duenean, halako erreakzio kimiko leun baina eraginkorra gertatu da nire barrenean, azaltzen oso zaila

dena. Saiatuko naiz hala ere. Bat-batean haurtzarora itzuli eta izan nintzen haur haren begi garbiekin neure burua ikusi banu bezala izan da, neure burua lehendakariarekin irribarrez ikusi banu bezala; haur haren begiek, kazetaririk bizkorrenarenak baino argiago, lehendakariaren eta bion arteko keinuaren kode ezkutua ulertu eta desegin balute bezala, desegin irribarre horren azpiko faltsukeriaren iturbururaino, muin-muineraino iritsi arte. Barne-lotsa mingarri batek estutu dit bihotza, Pancorboko mendiek errepidea eta herria bera ere estutzen duten gisa berean. Hainbeste urte politikan, hain gora iritsi eta oraindik horrela... Alferrik da. Inor ere ez da dirudien bezain gogor eta lehorra.

Pancorbon gelditu eta herria ezagutzea etorri zait burura, sekula errepidetik edota treneko leihatiletatik baino ikusi ez ditudan kale horietan paseo laburra egitea, Pancorbo benetan zapaltzea, Pancorbo benetan egotea, hartxintxarra bide ertzean egoten den bezala, abstrakziorik gabe, hantxe, errealitate fisiko ukaezin bihurturik. Nire malenkoniari aurre egiteko modurik zuzen eta zinezkoena horixe izango zela otu zait, arima estutu didan herriko kalesketara jaistea, barnetik betoszkoz begiratu nauen haurrari begietara begiratzea, kontzientziari eta barne-zalantzari bekoz beko erantzun zuzena ematen saiatzea azken finean. Ezin ordea. Autopistako irtenbidea pasatua genuen horretaz pentsatzen hasi naizenerako, eta bestela ere nekez pentsa zitekeen horrelakorik: konpromezu gehiegi Euskal Herrian eguna amaitu baino lehen. Ez diot ezer esan txoferrari eta zuzen-zuzenean etorri gara Gasteizaino .

Nahi dutena esango dute baina politikariok, funtsean, ez gara gezurtiak. Ez gara iruzurgileak. Ez behintzat gehienok, ez behintzat benetako politikari arima dugunok. Egia da, bai, sinesten ez duguna esan beharrean izaten garela askotan, edota egia nork geure kolorez pintatu beharrean behintzat, ia-ia beti, egunero-egunero. Mugatuta gaude. Hala nahi izanik ere, horretarako amorratzen egonagatik ere, ez zaigu inoiz zilegi izango kirolarien artean txalogarritzat jotzen dena: arerioaren merituak aitortzea, arerioari onespenezko txalo zintzoa jotzea; ezta gure alderdiaren bidean zuloak edota bihurgune arriskutsuak daudela esatea ere. Hala ere guk, gezur txiki horiek guztien jakinaren gainean, egia handiagoak ditugu buruan, eta egia horietan bai, sinetsi egiten dugu, sinetsi beharra daukagu derrigorrez, bestela ez baikinateke politikari izango, gizaki ere ez baikinateke izango bestela. Gu ere pertsonak gara, guk ere geure bihotz ttikia dugu, eta geure kontzientzia, geure barneko polizia ernea, bihotzik gabe jokatzen sumatzen gaituenean errieta latzak egiten dizkiguna, arimagabekeriaren mugetan lerratzen garenean zorrotz kosk egiten diguna. Zintzotasun Funtsezkoaren Barne Ministerioak ez digu guri ere barkatzen, batzuek hala uste badute ere.

Hori bai, aitortu beharra dago, eta horixe da nire gaur gaueko loa galarazten ari zaidan kezka: altuegia da gure hegaldia, zorabioa sentitzen dugu gezurraren etxeorratzen terrazetatik behean txiki-txiki ikusten den asfaltozko egiara begira. Hau zaila da azaltzen. Saiatuko naiz. Eguneroko lanabes ditugu makilaiak, mozorroak eta ispilu joko bihurriak. Eguneroko ogi dugu gezurra, jakinaren gaineko gezur txiki arriskugabea gehienetan, baina gezurra hori ere oinarrian. Gezurraren gezurrez, egiarik gabeko lurralde antzu batean mugitzen ohitzen gara, eguneroko errealitatetik gertu egon arren hura inoiz ukitzen ez duena, oholtza gaineko aktoreak, ikusleengandik gertu mugitu arren, ikusleak ukitzen ez dituen bezala, autopistak, herrietatik gertu pasatu arren, herriak ukitzen ez dituen bezala. Pancorbo da egia, eta autopista da gezurra. Autopistak –gure gezurrak– herritik herrira –egiatik egiara– joateko eginak dira berez, baina joan eta joan gezurretik irten gabeko bidaia amaigabe eta fantasma baterako gonbite arriskutsua ere izan daitezke, izaten dira. Beti dago aitzakia bat Pancorbo ez gelditzeko, beti dago aitzakia bat Moncloatik zuzen-zuzenean Ajuria-Enera joateko,

Espainiako Legebiltzarretik Gasteizkora. Beti dago egia handi bat egirik txiki eta ederrenak gezurrez estali eta itotzeko.

Bai, gu ere pertsonak gara, politikariok. Gure bihotza ere estutu egiten da zero gris baten azpian gure barneko haurra aurrez aurre agertzen zaigunean. Guk ere herri txikietako karrika estuetan ibili beharra sentitzen dugu, ia-ia beti ezinezkoa bazaigu ere. Gu ere, gezurraren langilerik trebeenak, egiaren miresle apalak gara, eta bere handitasunaren aurrean makurtuta otoitz egin beharra sentitzen dugu batzuetan, horretaz hitz egin edo idaztea guztiz debekatua izan arren. Guri ere bizitzak ihes egiten digu eskuetatik, eta guri ere min emango digu sekula Pancarbon izan gabe hiltzeak.

### **1994ko uztailak 1**

Ez naiz umea. Baina autoarroztasuneraino harritzen nau nagusia naizela pentsatzeak.

\* \* \*

Hogeita hamar urtetik gora gabiltza eta hasi gara gu ere gure artean kortesiazko zurikerietan. Beti gure gurasoen munduaren gaitzik tamalgarriena iruditu izan zaiguna ari da gutaz ere jabetzen. Horrek beldurra eta ezinegona sentiarazten dit.

### **1994ko abuztuak 3**

Miope fisikoa naiz, betaurrekoduna. Baina badut beste era bateko miopia bat ere, begiekin edo begi bistarekin zerikusi zuzenik ez duena, betaurrekoekin konpontzen ez dena: begiz ez ezik buruz ere miopea naiz. Begien aurrean eta eskura dudanari ondo antzematen diot, hainbestean moldatzen naiz aurrez aurre jartzen zaizkidan arazoak, konpontzeko ez bada ere, bai gutxienez nolakoak diren antzemateko. Baina galdu egiten naiz handiaren handiz urrunetik baino ezin begira daitezkeen kontuetan; lausotu egiten zait gogoaren ikusmena politika, gizarte, ekonomia eta mundu zabaleko gaien eta gatazken inguruan pentsatzen hasten naizenean.

### **1994ko urriak 29**

Nire argazkia egunkarian. Beldurra ere ematen du atzo hil izan banintz argazki hori bera toki berean agertuko zela pentsatzeak, inguruko letrak baino ez zirela aldatuko. Baina egunkarian nire argazkia agertu gabe ere maiz askotan irudikatu izan dut nire heriotzaren berri emango lukeen egunkari zatia.

### **1994ko azaroak 20**

#### Bonba eta Kiriko

Donostiarako autobusa abiatu berri zela, artean Azkoitiko kaleetatik irten gabe, Bonba eta Kiriko ikusi nituen leihatilatik zehar orain dela gutxi, ez dira bi hilabete ere izango. Beti bezala, makal-makal zebiltzan, presarik gabe. Beti bezala, Bonbak zeraman txatarra zaharrez zamaturako gurdia eskuekin helduta, irribarre zabala ezpainetan. Beti bezala, Kiriko Bonbaren aldamenen zihuan, kuzkurtuta, zigarroa eskuan.

Azkoitiarrantzat beti hain arrunt eta ohikoa izan den irudi hari sentimendu berezi batez erreparatu nion orduan, oroimenez, Azkoititik kanpora bizi naizenetik gutxitan



egin baitut topo Bonba eta Kirikorekin. Orain ez dut berriz bikote horrekin topo egiterik izango, ezta berriro Azkoitian bizitzen jartzen banaiz ere, Kiriko hil egin baita. Kirikoren heriotzaren berri eman zidan adiskideak esan zidanez, lur jota omen dago Bonba, urte askoan beti aldamenean izan duen laguna galdu duelako. Saminez jaso nuen Kirikoren heriotzaren berria. Galtzailea zenez –huraxe ba galtzailea, inon galtzailerik izatekotan!–, isilik joan da, hedabideetan oihartzunik izan gabe, baina zerbait hautsi zaigu bihotzean, kra!, azkoitiar guztioi Kiriko hil dela jakitearekin batera. Bonba eta Kirikoren irudia gure barruan baitago Azkoitiko edozein pertsonaia ilustre goraiaturena baino errotuago, hedabideak sekula iritsiko ez diren bazter gordean.